

Ostatuen ordutegia Baionan →

Tabakoaren Legeak ostatu atarian utzi ditu erretzaileak

2007ko otsailaren Letik debekatuta dago Zuberoko, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko enpresa, administrazio, osasun egitura, eskola eta garraio publikoetan erretzea. 2008ko urtarilean kasinotan, hoteletan, diskoteketan, jatetxeetan eta ostatueta erretzea debekatu zuten. Geroztik, erretzaileak



Zigarrokinak. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

karrika dute aterpe bakarra. Ostatutik atera eta sartu egiten dira, bitartean harrabotsa eraginez auzoen kalterako. Ostatuen itxiera tenoreak aitzinatuz, Herriko Etxeak muga jarri nahi dio harrabotsari. Oraingo gauzez. Frantziako zenbait hiritan zigarrokinak botatzea debekatu dago, eta enpresak hautsontziak ezarri behar ditu lantokietako sarreretan isunik ez hartzeko.

%30

■ **Bezeroen galera.** Erretzeko debekua indarrean sartu denetik, ostatueta diru sarrerak %30 apaldu direla diote ostaler gehienek. Arnasteko aire hobea egonez, denborarekin bezero gehiago ukanez zituztela erran zieten, baina denborak ez du hori frogatu.

Mozkorraldiei eta segurtasun ezari burdin hesia ezarri nahi die Baionak



Ostatuen atari eta terrazatan biltzen den jendeak harrabotsa eragiten duela dio Baionako Herriko Etxeak. GAZTAKA IROZ

Ostatuen itxiera oren batez aitzinatzea aztertzen ari da Herriko Etxea, kaleko edana kontrolatzeko neurriekin batera

Gaia aztertzen ari den batzordeak apirila bukatu baino lehen jakinaraziko du erabakia

Aitor Renteria Baiona

Besta giroak, gazteek eta biztanleen egunerokotasunak, talka egin dute Baionan. Iritzi horretako da Herriko Etxea eta ostatueta itxiera orduak aldatzeko erabakia har dezake. Azken urteotan Baiona Ttipiko giroak okerrera egin duela uste du. Jean Grenet Baionako auzapezak aitortu zuen, gainera, arazoa zabalagoa dela eta neurri zabalagoak

hartu beharko dituztela. Gaia aztertzeko batzordea osatu zuen urte hastapenean eta geroztik zuhurtzia handiz burutzen dituzte eztabaidak, publikoki deus adierazi gabe. Herriko Etxearen erabakiari beha daude herritar, ostaler eta gazteak. Hala ere, ostatueta itxiera tenorea aitzintzea Prefeturaren esku dago, harena baita eskumena.

Ostatueta erretzea debekatu zutenetik jendea karrikatara ate-

ratzen da erretzera eta harrabotsa handitu dela ondorioztatzen dute. Horrez gain, azken urteotan kaleko edana arrunta bilakatu da eta ostegun, ostiral eta larunbatean, ohikoa da arrunt edanda dauden gazte taldeak ikustea. Harrabotsaren arazoari, zikinkeria eta segurtasun ezaren arazoak gehitzen zaizkiola azpimarratzen du Herriko Etxeak. Baso hutsak eta botila hautsiak uzten dituzte karriketari eta karrika kantoiak komun gisa baliatzen dituzte. Ostatueta itxtean, borroka gehiago daukela dio Poliziak.

2008ko abenduaren zabaldu zuten Baionako unibertsitate berria. Geroztik, 2.500 ikasle ibiltzen dira Baiona Ttipiko karriketari. Auzoari bizia emanen ziola iragarri zuen Grenetek. Baina arazo bihurtu zaizkie orain.

Herriko Etxeak plantan ezarri duen batzordeak ez du erabakirik plazaratu, baina dagoeneko agindu zehatzak ditu Poliziak. Errobi hegiko ibil lekuetan, parkeetan edo autobide azpiko zubietan biltzen dira gazteak. Poliziak kontrolak ugaltu ditu bertan.

Auzoak kexu

Baiona Ttipiko auzoak kexu dira eta neurriak hartzeko eskatu diote Herriko Etxeari. Sinadura bilketa ezarri dute abian. «Ez dugu biltzen besta hiltzea, oreka atzemateak baizik», dio izenpetze ekimena bultzatu duen Anne Grivotek. Auzo xumea da Baiona Ttipia. Etxeen prezioak apalagoak dira. Alta, ez da erraza auzoan besta izatea eta lanera joan beharra. Horregatik, gazteak ostatueta inguruan biltzen badira, osta-

tueta itxiera tenoreak aitzinatzea da auzia aztertzeko eratu den batzordeak aztertzen duen proposamenetarikoa bat. Hain zuzen ere, ostatueta orain baino oren bat lehenago itxtea aztertzen ari dira, aste egunetan 24:00etan eta ostiral eta larunbatean goizaldeko oren batean. Itollarrian diren ostalerrak asaldatu dira, lanbidearen geroa arriskuan dagoela adier-

Baiona Ttipiko sarrera-irteeretan Polizia ezartzea aztertzen ari dira

ziz. Elkarte ugari ere Baiona Ttipikoan dituzte egoitzak eta haien araudia zorrotzea aztertzen ari dira. Baiona Ttipiko sarrera-irteeretan Polizia ezartzea aztertzen ari dira. Kaleko edana ekiditea litzateke haien eginkizuna.

Eztabaida ez da berria. Hainbat eragilerekin batera, Herriko Etxeak besta eta menpekotasunei buruzko jardunaldiak antolatu zituen iaz. Polizia, prokuradorea eta hainbat aditu ere izan ziren bertan eta «neurri gabeko mozkorraldien» aurka egiteko premia nabarmendu zuten.

Arazoa tokiz aldatu

Pariseko Descartes-Sorbonne unibertsitateko irakasle Michel Maffesoliki erreprezioaren mugen berri eman zuen topaketa haieran. Haren iritziz, erreprezioak bertze nonbaitera darama arazoa, ez du desagerrarazten. Gizartearen presioa ekiditeko moldea da besta eta toki batean debekatu badiete, ondoan eginen edo kasu honetan, Lapurditik hurbil. Nafarroa Behereko eta Lapurdiko gazteen besta gune garrantzitsuenak ez daude Ipar Euskal Herrian, Nafarroa Garaian edo Gipuzkoan baizik. Astebururo atzeman daiteke Dantxarinea edo Donostian horren frogat.